

a.3 GELAKO OHITURAK: ASTEKO ARDURADUNA

> Eguraldia eta data



- Lanketa

- Hilabeteak: Hilabeteak iruditan

Helburuak

- Hilabeteak euskaraz izendatzen ikastea.
- Euskal herriko zenbait ohitura ezagutzeko: eguraldia, janzkera, pertsonaiak, jaiak, datak...

Prozedura

- Umeei hamabi hilabeteen argazkiak erakutsi.
- Hilabete bakoitzean ikusten dutena deskribatzeko eskatu. Euskaraz adierazteko gai ez badira, hezitzaileak, umeek esaten dutena laburtzen duen ideia arbelean idatzi.
- Denak batera hilabete bakoitzarekin zerikusia duen ezaugarri bat arbelean idatzi.

Adibidez:

Urtarrila: elurra

Otsaila: inauteriak

Martxoa: udaberria

- Euren herrialdeetako ohiturak kontatzeko eskatu: eskolan noiz hasten diren, inauteriak noiz ospatzen diren... denen artean antzekotasunak aurkitzen saiatu.